

ComUE eta MONDRAGON UNIBERTSITATEAren arteko aktibitatearen errefortzua

2016/02/23

Akitaniako Zentro eta Unibertsitateen Komunitatearen eta MONDRAGON UNIBERTSITATEAren artean sinatutako hitzarmena berri du, Vicent Hoffmann-Martinot presidentek eta Vicente Atxa errektoreak.

Akordioaren helburua da Akitania-Euskadi Euroeskualdearen eta Nafarroaren arteko goi mailako hezkuntza zentroyen lankidetzaren indartzea mugaren bi aldeetan. Bultzatu nahi diren ardatzak dira:

1 ardatza: goi mailako eta ikerketarako mugaren bi aldeen arteko espazioa sortu, non posible izango den:

- Ikasle, irakasle ikerlari eta administrazioako pertsonen arteko mugikortasuna
- Formazio programa amankomunen garapena
- Ikerketa proiektu bateratuen garapena
- Kultur ekintza eta hizkuntza proiektuen sustapena...

2 ardatza: nazioarteko proiektu amankomunak bultzatu.

3 ardatza: goi mailako hezkuntza eta ikerketaren arloetan, eskualdeekin batera, lehentasunak markatu.

